

## MATERIALISMO HISTERIKOA

# Material ona



UXUE APAOLAZA LARREA

Lehengusu nagusiak (ez dakit bietako zeinek, Aitorrek edo Xabierrek) zinta batean grabatutako *hit*-en artean, *Hil eza-zu aita*, kotxean. Literaturara jaio berri zen hamalau urteko nerabetxoa familiarekin txangoan. Desasoseguan barrena zaramatzen ipuin bat, betirako geratzen eta errepikatzen den gorpuzkera.

*Esaio*k, ahizpak bai ala bai entzun nahi zuen kanta, “yasta, berdin zait dena”. Eta hainbat eta hainbat geruza zeharkatu zituzten kantak, denboraren orratzak plegatzen...

Marmarka hasi nintzen hasiera-hasieratik: esan nituen nostalgiaren aurkako asko, gaur egungo musikariei buruzkoak, *grabatu egingo gaituzte, publierreportaje bat gara, hau boomerrentzat Tinder erraldoi bat da*. Ahizpak isiltasun gor batekin erantzun zidan, eta sarrerak erosiko zituela jakinarazi zidan, “esan nahi duzuna, baina etorri egingo zara”. Eta amaieran ezin nion txalo egiteari utzi, hitzik gabeko eskerrik asko erraldoi bat.

Lehen kantarekin jakin nuen, akabo marmarrak: merezi zuten, merezi genuen. Zaplazteko handi bat, larru jotze bat, Garik berak orgasmo esan zion sentitzen ari zenari. Ba nostalgia honek *molatzen* du, material ona daukagu nostalgiarako, han geunden eta ez geundenen historia musikalean hori egotea ordainezina da. Inoiz ikusiko ez nuela uste nuen klasiko bat ikusi nuen, oso bizirik, eta nire ustezko zorroztasuna txikitu zuten. Izan eskuzabalagoa zure klasikoekin, identitatea zor diezu. ●

## EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA

www.adurlarrea.com



## Mondragon

ULMAK eta Oronak Mondragonetik irtetea erabaki dute, bazkideen gehiengo zabalak babestuta. ULMAko bazkideen %80k babestu du korporaziotik irtetea, eta babes zabalarekin ere Oronak: %70. Mondragonen komunikazio-kanpaina gogorak ez du beraz fruiturik eman.

## Euskara

Euskarazko murgiltze eredua duten hartzaindegiak aukeratzen dituzten guraso askok ez du horretarako aukerarik Ipar Euskal Herrian, eskaintza txikiagoa baita eskaera baino. Arazoari irtenbidea eman eta indarrak batzeko elkarteak sortu dute hartzaindegi eta hartzain-etxe euskaldunek: Konkolotx.

## Garraioa

Frantziako Gobernuak hirukoiztu egin nahi du hilerio ibilgailua partekatzen dutenen kopurua, eta horrela, CO2 isuriak %30 murriztea aurreikusi du. 100 euro jasoko ditu autoan 80 kilometro azpiko hamar bidaiak partekatzen dituenak, eta beste 100 distantzia luzeagoko hiru eginez gero.